

2021.02.21/ 18:00h/ Komentua

## Hirukoteen ...hirukotea

Beethoven (1770-1827), *Trio for Clarinet, Cello and Piano Op.11 en Si bemol*

Brahms (1833-1897), *Trio for Clarinet, Cello and Piano Op. 114 en La menor*

Glinka (1804-1857), *Trío Patético en Re menor*

### *SAS & Friends*

Amaia Zipitria (pn), Beatriz Linares (cello), José Masiá (fg),

Jasone Etxebeste, Carlos casadó & Marixi Sesma (clar)

---

Gaurko kontzertuan, klarineterako erromantizismoaren hirukote adierazgarrietako hiru lan entzungo ditugu. Konpositore hauen une sortzaileak desberdinak ziren, baina erromantizismoa esan nahi zuenaren funtsa dira lan hauek. Sortu zituztenean, Beethoven bere estiloa aurkitzera deitua sentitzen zen, Brahms erretiratuta zegoen eta Glinkak maitasunaren erresaka jasaten zuen (*"Maitasunak dakarren mina ezagutu dut"*). Hau da, espiritu erromantiko nagusiaren aurrean gaude: Beethovenen identitatearen bilaketa, Glinkaren maitasunaren utopia eta Brahmsen zisnearen kantua.

Beethovenek ez zuen alde batera utzi nahi Haydnen eta Mozarten bidea, baina, era berean, uste zuen ezin zuela horretan iraun. Hala, Op.11.hirukotea osatzen du, ordu arte inork egin ez zuen bezala, hau da, biolinaren ordeztu, funtsezko musika-tresna hirukote klasikoan (biolina, biolina eta pianoa) ustekabeko gonbidatu bat jartzen du, klarinetea. Ohore-leku batean esertzeko pribilegioa ematen dio, pianoaren eta biolontxeloaren ondoan.

Eta gainera klarineteari, beste musika-tresnen maila berean, pianoaren birtuosismoari protagonismoa ematen dion arren —Beethoven maisua zen musika-tresna—, parte hartzera bultzatzen dio, une batzuetan gutxi batzuen eskura dagoen askatasunarekin adierazteko aukera ematen dio. Beethovenek muskulatura bat erakutsiko du lehen mugimenduan, Haydnekin edo Mozartekin zerikusirik ez duena; tamainako emozio duen

bigarren mugimendu bat idazten du, malko bakar bat ere erori gabe —eroriko da aurrerago erromantizismoan—, eta, amaitzeko, abesti herrikoi bat erabiltzen du, kalekoa, aldaketak egiten dizkiona. Melodia hori gero erabiliko zuten konpositore askok, baina berak aprobetxatu zuen lehenik.

Brahms-ek, 58 urte zituela, testamentuan adierazi zuen ez zuela musika gehiago idatziko, Richard Mühlfeld klarinete-jolea ezagututa ordea bizi izan zuen loraldi berri bat. Meiningen-era egin zuen bidaia batean entzun zuen Brahms-ek Mühlfeld. Gertaera hau ez zen oharkabean gertatu, eta gutun batean jaso zuen Eusebius Mandyczewsky lagunari konpositoreak idatzi ziona: *“...klarinetearen eta biolontxeloaren tonuen nahasketa harmoniatsua zoragarria da, biak maiteminduta baleude bezala.”* Hain zuzen, Brahms-ek, Mühlfeld-ek inspiratuta, klarinetea nola tratatu jakin zuen, musika-tresnaren argitasuna nabarmenduz, gama ertain misteriozkoa eta beheko erregistroak duen sonoritate hunkigarria. Brahms konposatzeari lagata egon arren, ez zuen aukera pasatzen utzi, eta historiarako utzi zituen hirukote honetaz aparte, Op.120 bi sonatak klarinete eta pianorako ,eta Op.115 klarinete eta sokentzako bostkotea.

Sentimendu malenkoniatsu horretatik gutxi kendu omen dira Glinkaren partituran. Hala ere, gaztetasunaren oparotasunak eta lirismo italiarrak (Glinkak Italian ikasle zela idatzi zuen hau) arintasuna ematen diote jasandako maitasun- desengainuari, Errusiako kulturari lotutako emozio bizia askatuz. Glinkak, “errusiar musikarekin zerikusia duen ia guztiaren aita” izena duenak, Balakirev, Borodin, Cui, Mussorgsky, Rimsky Korsakov eta Txaikovsky bezalako konpositore apartak inspiratu zituen, guztiak sentsibilizatuta zeuden Errusiak bere musika-estiloa izan behar zuen gaiarekin, Alemania eta Italia alde batera utzita. Hala ere, Glinkak ahots-lan handiak idatzi zituen Italian bizi izan zituen urteen ondorioz, eta hori klarinetearen eta fagotaren esku-hartzeetan islatzen da, zein opera-maitale izango baziren bezela, alaitsu agertzen diren arren... Lope de Vegak bere bertsoetan hain ondo adierazi zuen trumina sentitzen dute ere: *“Zorabioa, ausartzea, haserre egotea... hori da maitasuna da, probatu duenak badaki”*.

Anekdotak gisa, Glinkak idatzi zion lehen aldiz klarineteari *“vibratoa”* jotzeko agindua... Beharbada, maitasunean irauteko azken hatsa ikusi ahal izango dugu, Vicente Aleixandre *“ezinezko sugarra”* bezala definitzen zuena.

CJCT

*XIX.Klarinete Maratoia*